



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos

EBAZPENA, 2022ko irailaren 26koa, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariarena, Datuak Babesteko Euskal Bulegoko lanpostu bat zerbitzu eginkizunen bidez betetzeko deialdia egiten duena.

Otsailaren 25eko 2/2004 Legeak, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoak xedatzen duenez, DBEB zuzenbide publikoko entea da, nortasun juridiko propioa eta gaitasun publiko eta pribatu erabatekoak ditu, eta herri-administrazioekiko inongo loturarik gabe beteko ditu bere eginkizunak.

Gaur egun hutsik dago goi-kargudunaren idazkariaren lanpostua (hutsik, ez du titularrik - 001/1), eta zerbitzuak lehentasunezko interesa duenez eta lanpostu hutsa betetzeko asmoz, lanpostua zerbitzu eginkizunen bidez bete nahi da aldi baterako, honako arau hauek kontuan hartuta: uztailaren 6ko 6/1989 Legearen, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoaren 54. artikulua eta urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren, Euskal Herri Administrazioetako Funtzionarioen Lanpostuak betetzeko araudia onartzekoaren 47. artikulua eta hurrengoak.

Horrenbestez, eta otsailaren 25eko 2/2004 Legeak, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoak esleitzen dizkidan eskumenak baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa: Onartzea «goi-kargudunaren idazkariaren» lanpostua (hutsik, ez du titularrik - 001/1) zerbitzu eginkizunen araubidearen arabera betetzeko deialdia arautuko duten oinarriak, zeinak ebazpen honen I. eranskinean agertzen baitira.

Bigarrena: Agintzea argitaratzeko honako deialdi hau DBEBren iragarki-oholean eta web-orrian 2022ko irailaren 29an.

Hirugarrena: Ebazpen honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio DBEBren zuzendariari, hilabeteko epean, Ebazpena DBEBren web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzekoak xedatzen duenaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko irailaren 26an.

**ZUZENDARIA,
MARGARITA URÍA ETXEBARRIA.**